

Hirugarren hizkuntzaren irakaskuntza arlo baten bidez: Txingudi Ikastolako esperientzia

(Teaching a third language through an area: the experience of Txingudi Ikastola)

Arano, Rosa M^a; Ugarte, M. Josune
Txingudi Ikastola
Jaizubia auzoa, z/g
20300 Irun

BIBLID [1137-4446 (2000), 11; 119-128]

Nola egin hirugarren hizkuntzaren sarrera, komunitate elebidun batean, hizkuntzetatik bat erabilera murriztekoa denean eta normalizatu gabea? Gure kasuan, nola egin ingeleraren sarrera, gaztelera behar bezala ikastea helburu denean, gehienentzat 2. hizkuntza den euskararen jabeakuntza-erabilerak ziurtatu nahi direnean eta hizkuntza honen normalizatzan urrats sendoak eman nahi direnean? Zein adinetan hasi? Nolako metodologiaren bidez?... hauek ziren, besteak beste, 95/96 ikasturtean Txingudi ikastolan egiten genituen galderak. Orduan, erabaki genuen ingelesaren irakaskuntzaz 3. mailan hastea eta ingeleseko saioez gain, arlo bat, Arte Hezkuntza, ingelesez erakustea 3. mailatik 6. mailara bitartean. Saio honetan, erabaki hauen azpian dauden arrazioen berri emango dugu batetik, eta bestetik, Arte Hezkuntza nola lantzen dugun adieraziko.

Giltz-Hitzak: Ingelesaren irakaskuntza. Arloaren aukeraketa. Hizkuntz edukiak. Sekuentzia didaktikoa.

¿Cómo llevar a cabo la introducción de una tercera lengua en una comunidad bilingüe cuando una de las dos lenguas tiene una utilización limitada y no se encuentra normalizada? En nuestro caso, cómo introducir el inglés cuando el objetivo es aprender el castellano correctamente, cuando se quiere asegurar la apropiación y uso del euskara que para la mayoría es segunda lengua y cuando se quieren dar pasos firmes en la normalización de dicho idioma? ¿A qué edad hay que empezar? ¿Con qué metodología?... Estas fueron, entre otras, las preguntas que nos hacíamos en la Ikastola Txingudi durante el curso 95/96. Fue entonces cuando se decidió comenzar la enseñanza del inglés en el tercer curso y, además de estas clases de inglés, impartir otra área –Educación Artística– en dicho idioma desde el tercer curso hasta el sexto. En el presente trabajo, por una parte, damos las razones en que se basan las decisiones citadas y, por otra parte, la forma en que se imparte la Educación Artística.

Palabras Clave: Enseñanza del inglés. Elección del área. Contenidos educativos. Secuencia didáctica.

Comment mener à bien l'introduction d'une troisième langue dans une communauté bilingue lorsque l'une de ces deux langues est utilisée de façon limitée et n'est pas normalisée? Dans notre cas, comment introduire l'anglais quand l'objectif est d'apprendre correctement l'espagnol, quand on veut assurer l'appropriation et l'utilisation de l'euskara qui pour la majorité est une seconde langue et quand on veut avancer fermement vers la normalisation de cette langue? A quel âge faut-il commencer? Quelle méthodologie employer? Nous nous sommes posés ces questions, parmi d'autres, à l'Ikastola Txingudi pendant le cours 95/96. C'est alors que nous prîmes la décision de commencer à enseigner l'anglais en troisième année et, en plus de ces cours d'anglais, enseigner une autre matière –Éducation Artistique– dans cette langue dès la troisième année et ce jusqu'en sixième année. Dans ce travail nous expliquons d'une part les raisons qui nous ont fait prendre ces décisions et, d'autre part, la façon dont est enseignée l'Éducation Artistique.

Mots Clés: Enseignement de l'anglais. Election de la matière. Contenus éducatifs. Séquence didactique.

Nola egin hirugarren hizkuntzaren sarrera, komunitate elebidun batean, hizkuntzetatik bat erabilera murriztekoa denean eta normalizatu gabea? Gure kasuan, nola egin ingeleraren sarrera, gaztelera behar bezala ikastea helburu denean, gehienentzat 2. hizkuntza den euskararen jabekuntza-erabilerak ziurtatu nahi direnean eta hizkuntza honen normalkuntzan urrats sendoak eman nahi direnean? Zein adinetan hasi? Nolako metodologiaren bidez?... hauek ziren, besteak beste, 95/96 ikasturtean Txingudi Ikastolan egiten genituen galderak. Galdera hauek ez dute erantzun bakar bat, erantzun ezberdinak izan daitezke eta guztiak zuzenak eta egokiak. Hain zuzen ere, egoerak, baliapideak, abiapuntuak, hirugarren hizkuntza horrekiko helburuak, hizkuntz kontzepzioak, e.a ezberdinak direlako. Hortaz, gure ustez, mota honetako erabakiek errealitatearen tokian-tokiko azterketa eskatzen dute. Ondorengo lerroetan gure plangintza gauzatzeko kontutan izan ditugun arloak jorratuko ditugu.

1. IRUNGO ETA TXINGUDI IKASTOLAKO HIZKUNTZ ERREALITATEA

Txingudi Ikastola D ereduko 5 lineatako ikastola publikoa da. Bere Hezkuntz Proiektuan jasotzen denez, euskararen normalkuntzan ahalegin berezia egiteko konpromesua hartzen du, horretarako Ikastetxearen Normalkuntza Plangintza berezia martxan jarriaz 96/97 ikasturtean.

Bertara, doazen ikasleen % 65arentzat, gutxigora behera, euskara 2. hizkuntza izango da eta euskararekiko motibazioa nahiko altua da.

Siadeco-k Irunen, 1997 urtean 3-9 urteko gurasoen artean egindako ikerketaren arabera, gurasoen erdiek ez du batere euskararik hitzegiten, % 20ak ongi hitzegiten du eta zerbait %27ak. Etxean oso haur gutxik entzuten ditu bere gurasoak euskaraz hitzegiten. Izan ere, bikote euskaldunak %10 besterik ez dira eta bikote hauek guztiek ere ez dute elkarren artean euskaraz hitzegiteko ohiturarik. Hortaz, etxe barneko hizkuntza nagusia gaztelania da.

Nahiz eta ikerketa honen arabera Irungo haurrik gehienek euskara ezagutu, Irungo kaleetan gaztelera da nagusi, nahiz bereziki haurrenak diren esparruetan (parkeetan, pilotalekuan,...), nahiz nagusienetan (dendetan, tabernetan, ...).

Eskolaz kanpoko ihardueren eskaintza euskaraz badagoen arren, gaztelerazkoa askoz ugariagoa da.

Beraz, Irunen euskararen erabilera guneak oso murriztak dira eta erabilera ohiturak ere. Bestela esanda, Normalkuntza alorrean ia ia hasikinetan gaude.

Aipatu berri ditugun datuetan ikus daitekenez, gaztelararen egoera hitzun kopuru aldetik nahiz erabilera aldetik guztiz bestelakoa da, hedadura handiko hizkuntza izateaz gain, normalizatu eta prestijioduna baita.

Ingelesari dagokionez, ia aipatu beharrik ere ez dago duen estatus eta onarpen maila. Guztiz normalizatu den hizkuntza dugu, prestijio ikaragarriduna, ia hizkuntza unibertsala bihurtzera iristeraino. Gizarte osoan bezala, gure gurasoek ere, hizkuntzen ikaskuntzarako hain garrantzitsua den motibazio altua dute. Beraien seme-alabek atzerritar hizkuntza bat edo gehiago (Ingelesa batipat) eskura dezaten duten nahia oso-oso altua da. Ingelesaren irakaskuntza plangintza bereziak martxan jartzeko ikastetxean presio egiteraino.

Egoera honen aurrean, euskara eskuratzeari eta finkatzeari eman diogu lehentasuna, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 3. mailara bitarte euskara delarik lantzen den hizkuntza bakarra. Bestela esanda, Hizkuntzen curriculum-eko denbora guztia eskaini nahi izan diogu gure inguruan larrien dagoen hizkuntzari: erabilera gunerik gutxien duenari, erabilera ohiturak eskuratzeke dagoen horri, hitz batez, normalizatu gabea eta prestigio gutxien duen komunitateko beste hizkuntza horri.

Dena den, gure ustez, komunitate elebidun batean hirugarren hizkuntzaren irakaskuntzaren inguruan sortzen den galderarik garrantzitsuenak ez luke izan behar noiz hasi erakusten hirugarren hizkuntza, baizik eta nola erakutsi hirugarren hizkuntza hori. Izan ere, egiteko era, eskuhartze pedagogikoa eta ingelesaren didaktika izango dira 3, 4, 5 ala 8 urterekin erakusten hasita emaitzak onak diren demostratuko digutenak. Adin ezberdinei zuzendutako proposamen didaktiko irudimentsu, zehatz, jarraipendun eta benetako etekinekin behar ditugu, alegia.

Goazen beraz, gure proposamen didaktikoaren oinarri diren printzipioak aztertzea.

2. OINARRI TEORIKOAK

2.1. Hizkuntzaren kontzeptzioa

Hizkuntza ekintza diskurtsibo gisa hartzen dugu.

Luze joango litzazuke eta tokiz kanpo legoke, kontzeptzio honetatik abiatzeak zehatz-mehatz zer esan nahi duen adieraztea. Dena den, honako hauek ez genituzke utzi nahi aipatu gabe:

- *Testua* da erabilera edo funtzionamendu unitaterik garrantzitsuenak, ahoz nahiz idatziz.
- Testuak aztertzeko *testu tipologiaz* baliatzen gara, hauetan aurki baititzakegu diskurtso edo testu genero ezberdinen deskribapenak eta sailkapenak, gero edukiak aukeratzeko.
- Bronckart eta bere taldekideen proposamenez baliatzen gara batipat hizkuntz fenomenoaren nondik-norakoak aztertzeko.

2.2. Interdependentzia linguistikoa

Ikuspegi ezberdinetatik abiatutako ikerketek argi uzten dute hizkuntza bat baino gehiagoren jabekuntza prozesuek elkarren arteko lotura hestua dutela.

Aspalditxo zihoen Vigoskyk (1935) ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesuek gauza asko berdintsuak dituztela, elkarren arteko barne lotura dutela eta hau oso aintzat hartu beharrekoa dela eskuhartze pedagogikoaren diseinua egitean.

Cummins-en (1979) hizkuntzen arteko elkardependentziaren planteamenduek, lehen hizkuntzan eskuratutako zenbait gaitasun linguistikok bigarren hizkuntzaren garapenerako onuragarri suertatzen direla edo bigarren hizkuntzaren jabekuntza ziurtatzen dutela aldarrikatzen dute.

Psikolinguistikatik egin diren ikerketek (McLaughlin, 1984, 1985, Galambos & Hakuta, 1988) hizkuntzen arteko elkardependentziak dituen abantailez hitzegiten dute, haur elebidunek gaitasun metalinguistiko gehiago eta hizkuntza berriak eskuratzeko erraztasun gehiago dutela adieraziz.

Hizkuntza ezberdinen jabekuntza besteekin elkarrekintzan ematen da. Hizkuntza bakoitza, beste hizkuntzetako eduki linguistikoa eskuratzeko, ikasleek konsziente edo inkoszienteki erabiliko duten ezagumendu iturri bihurtzen da. Badirudi hortaz, lehen edo bigarren hizkuntza zenbat eta hobeto menderatu hainbat eta errezago eta hobeto eskuratuko direla hurrengoak.

Gainera, diskurtso generoak hizkuntza guztietan berdintsuak dira, ekoizpen baldintzei berdin erantzuten diete eta testu egitura berdintsua dute. Hizkuntza batetik bestera aldatzen dena, bakoitzaren azaleko osagai linguistikoa dira.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa alorrek ere, berak dira hizkuntza guztietan (semantikoa, sintaktikoa, testuala, pragmatikoa,...), nahiz eta hizkuntza bakoitzak alor bakoitzean bere-bereak dituen, besteengandik ezberdinak diren gauzatzeak izan.

Guzti hau honela bada, argi dago atzerritar hizkuntzaren irakaskuntzaren plangintza gauzatzean eta eskuhartze pedagogikoaren nondik-norakoak zehaztean, ezin ahantz daitekeela lehenengo eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko plangintza.

2.3. Edukietan oinarritutako irakaskuntza

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari loturiko proposamen berriek (Mohan, 1986; Cantoni-Harvey, 1987; Prabhu, 1987; Genesse, 1987; Swain, 1988 Snow, Met & Genesee, 1989; Nunan, 1989) murgiltze programei buruz edo zereginetan edo edukinetan oinarritutako proposamen didaktikoei buruz dihardutenean bat datoz, gai edo arlo bat bigarren edo hirugarren hizkuntzan irakastea, hizkuntza horren ikasketa areagotu egiten dela, komunikaziozko esanahidun testuinguru bat sartzen delako, hain zuzen ere. Gure hezkuntzako D eta B ereduak horren lekuko.

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Printzipio hauetan oinarrituta honako hau da gure proposamena:

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan euskara izango da landuko den hizkuntza bakarra.
- 3. mailan ingelesa sartuko da. Bi saio ingelera lantzeko eta, curriculumneko arlo bat, arte hezkuntza, ingelesez erakutsiko da, 6. mailara bitarte.
- Gaztelera 4. mailan sartuko da.

Euskara, ingelera eta gaztelararako, testu pedagogian oinarritutako eta elkarrosagarria den programazioa gauzatu da. Elkarrosagarritasun hori hiru hizkuntzetarako testu motak aukeratzean eta testu motak lantzeko erabiltzen diren sekuentzia didaktikoen aukeraketan datza. Dena den, gaurko honetan ez gara arituko elkarrosagarritasuna aztertzen edo ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko sekuentzia didaktikoak deskribatzen luzeegi gertatuko baliatzaiguke eta beste zenbait egoeratan iada idatzi baitugu horretaz (Arano, 1992, Arano, Berazadi, Idiazabal, 1994,1996).

Gaurko honetan, arte hezkuntza (plastika eta drama) nola lantzen ditugun adierazi nahi genuke, batetik, eta bestetik arlo hori aukeratzeko kontutan izan ditugun irizpideen berri eman.

Aipatu behar dugu baita ere, 96/97 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eleaniztasun saiakuntza egitasmoak gauzatzeko zabalduetako deialdian parte hartu genuela, Txingudi Ikastola, lau urtetarako Eleanitzeko Saiakuntza Ikastetxe izendatua izan zelarik.

3.1. Arloa aukeratzeko irizpideak

Esan bezala arte hezkuntza (plastika eta drama, musika euskaraz ematen baitugu) aukeratu dugu ingelesez emateko, honako hauek izan direlarik kontutan izan ditugun faktoreak:

a) *Aukeratzen den arloaren garapen egokia.* Gure ikasleek 8 urterekin ikusten dute ingelesa lehen aldiz, beraz hutsetik abiatzen dira. Hutsetik abiatu arren, adin honetan arte hez-

kuntzari dagozkion helburuak eta edukiak garatu behar ditugu. Bestela esanda, Ingeles gutxi dakitela eta, arloari dagozkion edukiak ezin dira erdipurdi eman. Alde honetatik, plastika eta drama arloan adin honetan ez zaizkio eskatzen haurrari abstrakzio eta teorizazio maila sakinak. Arloaren garapena, zenbait trebetasun, material erabiltze eta jarreraren garapenean oinarritzen da eta nagusiki, eduki hauek ekintzak gauzatuaz atzematen dira. Era honetara arloari dagozkion edukiak eskuragarriak gerta daitezke.

b) *Arloaren izaera*. Edukietan oinarritutako esperientzien inguruan ari direnek adierazten dutenez (Met, 1997) ikusi eta ukitzeko aukerak eskeintzen dituzten arloak etekin handiagoak ematen dituzte hizkuntzaren ikaskuntzan inputa askoz ulergarriago gertatzen baita. Plastikari berezkoa zaion esparru semantikoa presente dago: lan desberdinak burutzeko beharrezko den materiale eta egin beharreko ekintzak, erabili beharreko momentuan aurrez-aurre daude. Era honetara, ikasleak entzuten duenari errez eman diezaike esanahia bere erreferentearekin lotuz.

Dramatizazio atalak hizkuntzaren erabilera desberdinak areagotzeko ahalbideratzen dituen abadaguneak ez dira gehiegi justifikatu behar: abestiak, leloak, jolasak, antzerkiak, ipuinen kontaketa... bi funtzio bete ditzakete. Batetik, disziplinaren izaeran daudenak: gorputz adierazpena, entonazioa, keinua... Eta bestetik, ingeles hizkuntzako saioetan beharrezko diren hainbat errepikapen, hizkuntz egitura, esapide, ahoskera,... memorizatzeko eta barneratzeko.

d) *Ahalbideratzen dituen hizkuntz-erabilerak*. Arlo bakoitzak eta egiteko era bakoitzak interakzio mota jakinak eta hizkuntz erabilera jakinak bideratzen ditu. Arte hezkuntza, guk lantzen dugun gisa hizkuntz-erabileretan aberatsa iruditzen zaigu. Ekintzak gauzatzeko hizkuntz-erabilerak ugariak dira, hala nola, aginduak, eskaerak, adierazpenak, egiaztapenak...

Egiten diren lanen prozesuen deskribapenak (instrukzio testuak) ikasteko eta adierazteko egoera apartak eskeintzeaz gain, egingo diren ekintza desberdinei buruzko planak egin eta bukatutako lanei buruzko balorazioak egiteko aukera ere eskeintzen du.

Hortaz, adina kontutan izanda, nahiko komunikazio egoera ugari eskeintzen duelakoan gaude.

3.2. Plastika eta drama arloei dagozkien hizkuntz edukiak

Plastika eta drama arloek bideratzen dituzten hizkuntz edukiek hiru motatan banatu ditugu:

a) *Testu monologalak* deitu ditugunak, hots, hitzun bakar batek gestionatzen dituenak. Gure kasuan deskriptiboak eta instruktiboak izango dira, batipat. Adibidez: eskulan baten gauzatze prozesuaren adierazpena, edo marrazki baten deskribapena, ...

b) *Testu dialogalak*, hitzun bat baino gehiagoren arte gestionatzen diren komunikazio egoeraren ondorio diren testuak. Gure kasuan, plastikari dagokionez, gelako interakzioa ingelesez bideratzeko beharrezko diren esapideak nagusiki, hala nola, eskaera mota ezberdinak egiteko esapideak, balorapenak egiteko esapideak,... Zenbait kasutan ingeleseko saioetan lantzen diren berberak dira, kasu hauetan beraien eskuraketa errezagotzeko suertatzen delarik.

Drama arloak, bereziki errazten du esapide mota hauen lanketa. Plastikan lantzen direnez gain, eguneroko bizitzan erabilgarriak gertatzen diren beste esapide batzuk sartzeko aukera eskeintzen digu, hala nola, ezezagun batetkin elkarriketari hasera emateko esapideak, denda baten zerbitzu eskatzeko esapideak, ...

d) *Hiztegia*, arloari dagokiona, hau da, plastika eta dramako edukiak lantzeko proposatzen diren iharduerak zehazten dutena, batetik, eta bestetik, ingeleseko saioekin lotuta dauden interesguneetako hiztegia. Kasurako, ingeleseko saioetan etxea lantzen ari badira, plastikako edo dramako edukiak lantzeko ere interesgune bera erabiliko da.

Lantzen ari garen hizkuntz erabilera, plastika arloari dagokion sekuentzia didaktikoan txertatzeko unea eta era, zuhur aukeratu behar dira, erabilera hori dagokion komunikazio egoeran ahalik eta erarik naturalean eta ahalik eta gutxien bortxatuaz txertatu nahi bada behintzat.

3.3. Plastika arloari dagokion iharduera bat lantzeko uneak

Drama hizkuntza lantzeko baliapide gisa asko jorratua den alorra denez, tarte hau, gutxiago aztertua den beste arloari eskeini nahi genioke, plastikari alegia, izan ere gure programakuntzan denborarik gehien eramaten diguna baita. Hortaz, plastikako iharduera bat gauzatzeko ematen diren guneak aztertuko ditugu hurrengo lerroetan.

Plastikako eduki bakoitzaren lanketan honako gune hauek bereiz daitezke:

a) *Ihardueraren aurkezpena eta girotze lana*

Atal honetan eginkizunaren helburua eta zertarakoa adierazten zaizkie ikasleei zehatz-mehatz. Ez da justifikatzen landu behar den edukia, baizik eta aurkeztu den iharduera. Zertarako egingo da iharduera hori? gelako txokoren bat apaintzeko, ikasgelan behar den zerbait gauzatzeko, gurasoentzat den zerbait apaintzeko, etab.

Aurkezpena eta girotze lana zenbat eta egokiago egin ikasleen motibazioa eta ihardueraren erakargarritasuna areagotu egiten da. Hau dela eta, hasiera batean, hirugarren mailan batipat, ikasleen ulermena ziurtatzeko aurkezpena euskaraz egiten da. Ikasleen ingeles maila hobetzen doan heinean ordea, ingelesez gauzatuko da aurkezpena eta girotze lana.

Une honetan lantzen den testu monologal mota, planak egitea eta justifikatzea alegia, beti ere, ulermen mailan eskatzen zaie.

b) *Materialaren aurkezpena eta banaketa*

Iharduera guztietan, erabiliko den materialaren aurkezpena egiten da. Hasera batean irakaslea da aurkezpena egiten duena. Ingelesa erabiltzeko gaitasuna garatzen den heinean aldiz, ikasleek egingo dute. Bostgarren mailan esate baterako, ikasleak dira zuzen-zuzenean materialaren aurkezpena egiten dutenak. Une hau bereziki aproposa da plastika arloari dagokion hiztegiaren ulermena, memorizaketa eta ekoizpena ziurtatzeko

Materialaren banaketari dagokionez, astero lau arduradun izendatzen dira. Ikasle hauek materiala aurkeztu, banatu eta jaso, gela txukundu, gelako arauak oroitarazi eta beste hainbat betebeharez arduratzen dira. Helburua, ikasleek beraien eginbeharrez arduratzea da, alde batetik, eta bestetik, ikasleari egoera komunikatiboa eskeintzea ingelesa erabiltzeko, ingeles hizkuntzako saioetan edo plastikako saioetan landutako hiztegia eta esapideak erabiltzeko abadagunea aurkeztu zaielarik.

d) *Iharduera egiteko eraren adierazpena*

Irakaslea, prozesuaren adierazpena egiterakoan, testu instruktiboaz baliatzen da, egitura hau iharduera bakoitzean errepikatzen delarik. Hasieran, irakasleak berak egingo du prozesuaren adierazpena, behereko mailatan euskaraz lehenbizi eta gero ingelesez. Mailak aurreratu ahala ikasleari berari eskatuko zaio adierazpen mota hau egitea. Hortaz, urrats hau bereziki interesgarria da testu instruktiboaren ulermen-adierazpenak lantzeko.

e) *Ikasleak lana egiteko unea*

Ikasleak iharduera egiten ari diren bitartean, irakaslea ingelesaren, esapide edo hiztegi berrien ereduak aurkezteaz, errepika arazteaz edo ekoizteko eskatzeaz arduratuko da, taldez-talde.

Horrez gain, lana berari eta arloari dagozkion komentarioak ingelesez egiten dira, eus-kara ikaslearen beharren arabera erabiliaz.

f) *Gauzatutako lanen deskribapena*

Une hau ihardueraren arabera da, hau da, ez da guztietan agertzen. Marrazkiren bat edo eskulanean bat burutu denean, eta ikaskideei zer den adierazteak zentzua duenean, (baten bat etorri ez delako, edo norbere familiako gauzei buruzko marrazkia edo lana delako, orduan deskribatu egiten da. Adibidez: *nork bere familiari buruzko marrazkiaren deskribapena, nork bere gelaren maketaren deskribapena*, etab). Hortaz, testu monologalaren ekoizpe-na gauzatzen da une honetan.

g) *Gauzatutako lanei buruzko balorazioa*

Iharduera burutu ondoren eta lanak bukatuak direlarik gelakideek bakoitza bere lanaren eta besteenei buruzko balorazio bat egiten dute, lanari buruzko haien iritzia azalduz. Hirugarren maila hasieran, balorazioa euskaraz egiten da. Geroago, ikasleek euskaraz esaten dituzten esapideak ingelesez landuko dira, lehenbizi irakasleak eredu emanaz eta errepikapena eskatuaz. Bostgarren mailan balorazioa ingelesez egingo da.

h) *Gauzak jasotzen eta gela txukuntzen*

Saio bakoitzaren bukaeran arduradunek materiala jaso eta gela txukuntzen dute. Irakasleak gauzen kokaguneari buruzko esapideak, garbitasunari buruzkoak, ... ingelesez emango ditu. Ikasleek zerbait esan baherko balute ere, ingelesez esateko eskatzen zaie, ikasleak esapidea ez badaki, irakasleak eredu emanaz eta errepikapena eskatuaz.

3.4. Hizkuntz edukien lanketa

Arestian aipatutako testu monologalak, testu dialogalak nahiz hiztegia lantzeko, hiru urrats ematen dira:

a) *Ereduren aurkezpena eta ulermenaren ziurtapena*, une honen helburua ikaslearen-tzat berria den hitza edo testu eredu emanatea litzateke eta ulermena ziurtatzea.

Hiztegiaren kasuan, materialen aurkezpena eta banaketaren gunea erabiltzen dira batipat eginkizun honetarako, materialen presentziak eta manipulazteak argitzen duelarik hitzen esanahia.

Testu dialogalen aurkezpena eta ulermena ziurtatzeko 3.4 puntuan aipatutako gune guz-tiak erabiltzen dira gune bakoitza esapide batzuentzat besteeentzat baino aproposago gerta-zen delarik. Egoera bera da, bestalde, ikasleari esapidea ulertzen lagunduko diona.

Testu monologalak bereziki ihardueraren aurkezpena eta egiteko eraren adierazpena burutzean lantzen dira batipat. Ulermena ziurtatzeko euskara erabiltzen delarik lehenbiziko-an, hots, lehenengo euskaraz esaten du irakasleak eta gero ingelesez, 5 eta 6. mailetan inge-les hutsean egiteko. Bigarren kasuan iharduera gauzatzeak berak ziurtatzen du ulermena.

b) *Buruz ikastea*

Lantzen diren esapideak eta hiztegia buruz ikasi behar dira, ekoiztu ahal izateko. Horretarako, hizkuntz egiturak eta hitzak behin eta berriz errepikatzen dira, arestian aipatuta-go gune ezberdinetan.

d) *Ekoizpena*

Testu monologal, dialogal nahiz hiztegiaren ekoizpen egoerak nahita nahiezkoak dira benetan hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi denean eta jabekuntzarik eman den ziurtatu nahi denean. Iharduerak aukeratzean nahiz iharduera bakoitza lantzeko guneak eta egoerak diseinatu orduan, bereziki kontutan izan dugun alderdia da hau, ikasleari, jorratutako hizkuntz erabilerak ekoizteko aukera eskeintzearena, alegia.

Hiru urrats hauek, ez dira ematen derrigorrez hitz edo esapide berria aurkezten den aldi berean. Iharduera bat lantzen ari garela, egoera batean hitzaren edo esapidearen aurkezpena egin daiteke, hurrengo saioan beste egoera bat aprobetxatu buruz ikasteko errepikapenak nagusituko direlarik eta hurrengo saio batean ekoizpenari egingo zaio tarte.

3.5. Arte hezkuntzari dagozkion kontzeptuen lanketa

Plastika arloari dagozkion kontzeptuak landu behar direnean, hala nola, proportzioa, silueta, altuera, sakonera... azalpenak, euskaraz ematen dira nagusiki. Izan ere, kontzeptu hauek abstrazio maila bat eskatzen dute eta ingelesez emanez gero, adin honetako ikasleek duten ingeles maila kontutan izanda, zaila gertatuko litzaieke kontzeptu hauen eskuraketa. Bestela esanda, ingelesaren erabilerak disziplinaren behar bezalako garapena eragotziko luke.

Bestalde, oso hitz teknikoak direnez eta gainera beraien agerpena iharduera batetara edo bitara mugatzen denez, ez lukete erabiltzeko abadagunerik izango plastikako saiostatik at. Hortaz, gure ustez, ez du merezi hiztegi mota honen lanketari denbora gehiegi eskeintzerik.

3.6. Ebaluaketa

Ebaluaketa gauzatzeko bi arlori buruzko informazioa jasotzen da:

a) *Ikasleen jabekuntzari buruzkoa*

Unitate bakoitzaren bukaeran, hiruhilabetekoaren bukaeran alegia, ikasleen jabekuntzari buruzko informazioa jasotzen da. Informazio hau erregistratzeko kontrol zerrenda bat gertatu da. Kontrol zerrenda honetako item-ak ingelesaren jabekuntzari eta plastika arloari dagozkion edukien jabekuntzari buruzkoak dira.

b) *Ikas-irakaskuntza prozesuaren ebaluaketa*

Ikasleen jabekuntzari buruzko informazioa ez ezik, ikas-irakaskuntza prozesuari buruzko informazioa ere jasotzen da. Bestela esanda, iharduera bakoitzaren bukaeran, eduki aukeraketaren egokitasuna (hizkuntzari dagozkionak nahiz plastika eta drama arlokoak), ihardueraren egokitasuna, iharduera hori gauzatzeko sekuentziaren egokitasuna, erabilitako denbora eta baliapideen egokitasunari buruzko hausnarketa egiten dute arte hezkuntza eta ingelesa ematen duten irakasleek. Hausnarketa honen ondorioz eta ikasleen jabekuntza ikusita, aipatutako alderdiei buruzko erabakiak hartzen dira: edukiak aldatzea ala mantentzea; iharduera aldatzea, egokitzea, ala mantentzea, etab. Aldaketa hauek, hurrengo ikasturterako unitate didaktikoetan jasotzen dira.

d) *Kanpo ebaluaketa*

Eleanitzeko saikuntza ikastetxe garen aldetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik egitasmoaren jarraipena egiten da. Zenbait informazio bilketa gauzatuak dira iadanik saiakuntzan parte hartzen dugun ikastetxeetan eta ingelesa horrela landu ez arren, egoera beretsuan dauden beste ikastetxe batzuetan.

Informazio bilketa hauen emaitzarik ez dugu jaso, saiakuntza 2000. urtean burutzen baita.

4. ONDORIOAK

Behinbetirako emaitzez hitzegiteko arinegi bada ere, ez genuke bukatu nahi gogoeta xume batzuk plazaratu gabe.

Hasteko, arloen lanketa erabiltzeak Hizkuntza erakusteko bere abantailak dituela aitortu beharrean gaude: denbora areagotzea, interakzio mota esanguratsuak sortzea, egoera komunikatibo errealeak ematea,... bideratzen ditu. Dena den, gure ustez, edukin bat hizkuntza horretan emateak soilik ez du ziurtatzen hizkuntza hori behar bezala ikasiko dutenik. Ongi aztertu behar da, curriculumeko zein arlo gerta daitekeen errentagarriena hizkuntzaren ikasketarako, besteak beste, ahalbideratzen dituen egoera komunikatiboen maiztasuna eta ugarietasuna kontutan izanda batetik, eta, ikasleen adina, bestetik.

Era berean, ez dugu uste, hizkuntza ikasteko propio sortutako saioak ere albo batera utzi behar direnik. Izan ere, ikasten ari diren hizkuntza horretan edukin bat edo gehiago emateak ez ditu bermatzen hizkuntza horretan egokitasunez aritzeko erabilera guztiak. Zentzu honetan, ezinbesteko ikusten dugu curriculumeko edukin zehatz hori lantzeko ematen diren egoera komunikatiboen azterketa egitea eta hizkuntzako saioen bidez egoera komunikatibo hoiek osatzea, falta direnetan ekinez batipat. Honek, hizkuntzako saioetako eta arloaren lantetari dagozkion saioetako programazioen arteko koordinaketa zehatza eskatzen du.

Bestalde, kontuz ibili behar da arloa aukeratzean. Hizkuntzak ez du oztopo izan behar ikasleen curriculumetik aukeratutako disziplinak behar bezalako garapena izan dezan. Bestela esanda, ikasleek arlo horri ezarritako helburuak atzeman beharko lituzkete, ez lukete galerarik jasan behar.

Ekintzari oso lotuak diren arloak aukeratzean, plastika gure kasuan, sekuentzia didaktikoan ikasleen hizkuntz ekoizpenak jasotzeko egoerak diseinatu egin behar dira, bestela errez gerta daiteke ingelesaren presentzia irakaslearen ahoan besterik ez izatea.

Bukatzeko, bistan dagoena bada ere, ez genuke aipatu gabe utzi nahi, oso garrantzitsua dela arloa emango duen irakasleak ingeles maila ona izateaz gain, arloari dagokion eza-gutza maila ona ere izatea. Hortaz, halako lan batean hasteko irakaslegoaren prestakuntza ezinbestekoa da, hizkuntzaren didaktikan nahiz arloaren didaktikan.

BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK

ARANO, R.M. (1992): Testu pedagogia eskolaurrean: testu monologalak. *Pedagogia del texto-testuaren pedagogia. Idiazabal eta beste*. Labayru Ikastegia

ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I. (1994): Una experiencia de didáctica y evaluación de discurso oral en primer ciclo de primaria CL&E, 23, 69-79 or.

ARANO, R.M., BERAZADI, E. e IDIAZABAL, I. (1996): Planteamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe. En M. Pujol y F. Sierra, *Las lenguas en la Europa comunitaria, vol II*. Amsterdam: editions Rodopoi, 65-88 or. 1994an "Hezkuntza eleaniztunari buruzko II. nazioarteko ihardunaldietan" aurkeztutako komunikazioa.

CANTONI-HARVEY, G (1987): *Content-area language instruction: approaches and strategies*. Reading, MA. Addison-Wesley.

- CUMMINS, J. (1979): Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49, 222-251 (Gazt. itzulpena *Infancia y Aprendizaje*, 1983, 21, 37-61).
- GALAMBOS S. J. & HAKUTA, K. (1988): "Subject-specific and task-specific characteristics of metalinguistic awareness in bilingual children" *Applied Psycholinguistics* 9, 141-162.
- GENESEE, F. (1987): *Learning throw two languages: studies of immersion and bilingual education*, Cambridge, Newbury.
- MCLAUGHLIN, B. (1984): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume1. Preschool Children*. (Second edition) Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.
- (1985): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume 2 Preschool Children*. (Second edition) Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum.
- MET, M. (1996): Integrating language and content: issues to consider. *Planificación y organización de la escuela plurilingüe*. Eusko Ikaskuntza
- MOHAN, B. M. (1986): *Language and content*. Reading, MA. Addison-Wesley.
- NUNAN, D. (1989): *Designing Tasks for the Communicative Classroom*. Cambridge, Cambridge University.
- SIGUAN, M & MACKEY, W. (1986): *Educación y bilingüismo*. Unesco Santillana
- SNOW, M. A.; MET, M.; GENESEE, F. (1989): A conceptual framework for the integration of language and content in second/foreign language instruction". *Tesol Quaterly* 23/2 201-217.
- SWAIN, M (1988): Bigarren Hizkuntzaren ikaskuntza areagotzeko edukin-irakaskuntza manipulatu eta osatzea. *Murgiltzea eta Irakaskuntza elebiduna*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1996.
- VIGOTSKY, L.S. (1935): El problema del multilingüismo en la infancia en *Desarrollo mental del niño y educación*. Editora estatal.